



Kepa Junkera eta Oreka TX taldeko txalapartariak, Euskalduna Jauregian pasa den ostiralean.



'Zaramazhon', Euskal Herria

Felix Iñurrategi-Baltistan Fundazioak sekulako bultzada jaso zuen aurreko ostiralean Bilboko Euskalduna Jauregian eginiko jaialdian. Balantze ekonomikoa gorabehera, Fundazioko kideek parez pare irekita aurkitu dituzte jo dituzten ate guztiak, eta horrek bizitu egin du Machulun (Baltistan) gauzatu nahi dituzten bi egitasmoen martxa, mendi eskolaren eta uren kanalizazio eta biltegiratzearena alegia. Felixek amestu bezala. Horregatik guztiagatik, antolatzaileek 'zaramazhon' eta 'judafis' ('eskerrik asko' eta 'agur', baltieraz) esanez bukatu zuten ekitaldia.

Andoni Urbistondo / Bilbo


Malkorik isuri ez zuen lagun gutxi zegoen Euskaldunan gaur astebete. Malkoak Felix Iñurrategiren irudiak ikustean, malkoak Mikel Urdangarín abeslariak *Igo nazazu nire mendira* kantua do-tore abestu zuenean, malkoak Sebastian Lizasoren eta Andoni Egañaren bertso hunkigarriekin. Baina, malkoekin bat, 1.600 ikusleren txalo zaparrada beroak ere entzun ziren; besteak beste, Alberto Iñurrategi eta Joxerra Zubizarreta Fundazioko kideek ekimenaren xedeak azaldu zituztenean eta jaialdiko beste abeslari, aktore eta dantzariak euren jarduna bukatu zutenean. Bi ordu iraun zuen ekitaldiak eta tarte horretan 265 dei jaso zituzten. Batzuek materiala eskaini zuten, besteak musu truk lan egiteko prest agertu ziren, Felix Iñurrategi-Baltistan Fundazioak jende askoren arreta erakarri duen seinale.

Orain urte batzuk erretu zen fundazioa sortzeko asmoa, Iñurrategi anaiak Karakorum mendikatera egiten zituzten bidaietan. «Ingo juau, ingo juau», esaten zuten bi anaiak. Felix Iñurrategiren zorigaiztoko heriotzak azkartu zuen, eta apirilean bete zen lehen erronka. Ibrahim Akhon eta Rustam Ali Euskal Herrian



Ibrahim Akhon eta Rustam Ali, Euskal Herrian izan zirenean.

Gari Garaialde



Felix Iñurrategi - Baltistan
Fundazioa

Bazkide egiteko modua

✦ Felix Iñurrategi-Baltistan Fundazioak 125 bazkide ditu egun. Horietatik 75ek Euskaldunako jaialdian eman zuten izena. 25 euroko diru saria ordaindu behar da urte batez bazkidea izateko (5.000 pezeta, 200 libera). Interesa duenak nahikoa du 900 840 880 telefono zenbakira deitzea, han emango baitizkiote argibide oro. Telefono zenbaki horrek urriko azken astea arte balioko du horretarako. Hortik aitzina Euskal Mendizale Federazioko web orrian egin beharko da bazkide txartela (www.mendikoweb.com).

eta Pirinioetan izan ziren, goi mendietako trebakuntza ikasten eta beharrezko prestakuntza eta eskarmentua hartzen. Joan den ostirala mugarria izan zen fundazioaren bidean, baina bidea luzea da oraindik.

Mendi eskola eta Machuluko ur kanalizazioa

Felix Iñurrategi-Baltistan Fundazioak eresia du mendi eskola altxatzeko lur saila eta eraikuntza materiala. Euskal Herriko mendi talde gehienekin harremanetan dira, material bilketa egiteko eta, horren arabera, prestakuntza lana abiatzeko.

Machuluko uren kanalizazioa eta ur biltegiratzea luzerako ekimena da. Ur gabezia handia da Machulun, baina azpiegitura egoki batek gabezia hori leunduko luke. «Proiektua idatzita dago. Ingeniariak hara joan behar du, lanak ikuskatzeko, baina nik uste dut urte batean ura bideratzeko hodiak eginda edukiko ditugula», Joxerra Zubizarretak azaldu zuenez. Ur biltegia altxatzea urte batzuetako lana izango da (35-40 milioi pezetako dirutza xahutu behar dute), «baina pixkanaka, lortuko dugu».

Fundazioak Machulu aukeratu du herri hartako garapena laguntzeko, baina urteen joan-etorrian ez dute baztertzen Baltistango beste herrietan ere Machuluko bide berari jarraitzea. «Jaialdi bakarra egin dugu eta harrera sekulakoa izan da», dio Zubizarretak. Zergatia argia da berarentzat: «Iñurrategi anaiak euskaldun askoren bihotzetara iritsi ziren, oso maiteak ziren».

Lizaso eta Egaña bertsolarientzat, «euskaldunak lagunak lagunak garelako» sortu da Fundazioa. Machulu eta Baltistan zehazki non dauden ez badakigu ere. «Non dago Baltistan?», galdetu zion Egañak Lizasori. «Guretzat hurbil, Felixentzat bistan», erantzun zion horrek. Felixek badaki Machulu non dagoen.